

Donostia, 2022ko urtarrilaren 7a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

MOZIO ARRUNTA: URUMEA IBAIRA BOTATAKOAK HANDIK ATERATZEA

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu Urumea ibaira botata dauden gauzak handik ateratzearen gaineko MOZIO hau aurkeztu du, UDALBATZAREN OSOKO BILERAN EZTABAITZATEKO.

JUSTIFIKAZIOA

Orain dela gutxi, Eguzki talde ekologistak bere sare sozialen bidez salatu zuen zabortegi bat zegoela Urumea ibaian urpean, Mundaizko zubiaren eta Maria Kristina zubiaren artean. Haiek zabalduko bideoan, pertsona batek erakusten du ehunka objektu daudela pilatuta (somierrak, aulkiak, bizikletak, lisatzeko mahaiak, sukaldeak eta hamabost bat komunontzi, besteak beste) ibaiaren ezker aldean.

Donostiak arrisku handia du klima-aldaketaren ondorioek erasateko, eta dagoeneko adierazia du klima larrialdia; beraz, onartezina da baldintza horietan edukitzea gure hiritik pasatzen den ibaia. Horregatik, derrigorra da gai honetan eskumena duten erakunde guztiak inplikatzeko egoera hori lehenbailehen konpontzeko.

Hori dela eta, hau da gure dakargun

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen die Gipuzkoako Itsasertzen Zerbitzu Probintzialari, Ura uraren euskal agentziari eta gai honetan eskumenen bat duten erakunde guztiei garbitzeko eta/edo finantzatzeko Urumea ibaia Donostiako partean garbitzeko egin behar diren lanak.
2. Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen die gai honetan eskumenak dituzten gainerako erakundeei handitzeko zaintza-lanak, Urumea ibaira ezer ere bota ez dadin.

Aitzole Araneta Zinkunegi,
Elkarrekin Donostiaren bozeramaile